

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko azaroaren 28tik abenduaren 4rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Boletín Oficial del País Vasco de día 03/12/2020

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. – Lan hitzarmen kolektiboak.**
 - Ebazpena, 2020ko azaroaren 23koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den kontserba begetalak fabrikatzeko estatu mailako hitzarmen kolektiboa luzatzeko akordio partziala, eta onesten diren 2020. urterako behin-behineko soldata-taula eta 2021. urterako soldata-igoera. **2020-15570 xedapena- 4 or.**
 - Ebazpena, 2020ko azaroaren 23koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, aurrezki kutxen eta finantza erakundeen hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **2020-15571 xedapena - 62 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/11/28

- **BARNE MINISTERIOA. – Mugak.** - INT/1119/2020 Agindua, azaroaren 27koa, uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua luzatzen duena. Agindu horren bidez, hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialde elkartuetara ezinbestekoak ez diren bidaien aldi baterako murrizketa aplikatzeko irizpideak aldatzen dira, ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiengatik, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela-eta. **2020-15174 xedapena - 2 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA. – Sendagaiak.** - SND/1121/2020 Agindua, azaroaren 27koa, 2020an Osasun Sistema Nazionaleko sendagaien erreferentziazko prezioen sistema eguneratzen duena. **2020-15176 xedapena - 1054 or.**

2020/12/01

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.- Gizarte Segurantza.** – Ebazpena, 2020ko azaroaren 26koa, Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatu Idazkaritzarena, azaroaren 23ko ISM/1099/2020 Agindua aplikatzearen ondoriozko desberdintasunak doitzeko epe berezia ezartzen duena. Agindu horren bidez, 2020ko ekitaldirako kontingentzia arruntengatiko Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarri arautuak ezartzen dira, Ikatz meatzaritzari dagokion Gizarte Segurantzaren Araubide Berezian. **2020-15297 xedapena - 1 or.**

2020/12/02

- **JUSTIZIA MINISTERIOA.**
 - **Espainiar nazionalitatea.** - 1049/2020 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, zeinaren bidez aldatzen den egoitzaren ondorioz espainiar nazionalitatea lortzeko prozedura arautzen duen araudia, azaroaren 6ko 1004/2015 Errege Dekretuak onetsia. **2020-15392 xedapena - 3 or.**
 - **Mugapea eta planta judiziala.** - 1050/2020 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, 2020ko programazioari dagozkion COVID-19ko hogeita hamahiru unitate judizial sortzeari buruzkoa. **2020-15393 xedapena - 18 or.**
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. – Alarma egoera. Laguntzak.** - TMA/1134/2020 Agindua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen diren apirilaren 30eko TMA/378/2020 Aginduan Estatuak abala emandako eta diruz lagundutako maileguak eskatzeko eta formalizatzeko ezarritako epeak. Agindu horren bidez, COVID-19ari aurre egiteko gizarte eta ekonomia arloko premiazko neurri osagarriak onesten dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuko 9. artikuluan ezarritako finantzaketa-laguntza iragankorrak eskura ditzaketen ohiko etxebizitzaren errentarien irizpideak eta betekizunak zehazten dira. **2020-15395 xedapena - 2 or.**

2020/12/03

- **KANPO ARAZOETAKO, EUOPAR BATASUNEKO ETA LANKIDETZAKO MINISTERIOA. – Nazioarteko itunak.** – Espainiako Erresumaren eta Errumaniaren arteko hitzarmena, errentaren gaineko zergei lotutako zergapetze bikoitza ezabatze eta zerga ihesa eta saihestea prebenitzeko, eta Protokoloa, 2017ko urriaren 18an Bukaresten egina. **2020-15493 xedapena - 17 or.**

2020/12/04

- **OGASUN MINISTERIOA.**

- **Administrazio prozedurak. Kudeaketa informatizatua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.** - HAC/1154/2020 Agindua, urriaren 27koa, honako agindu hauek aldatzen dituena: HAC/1400/2018 Agindua, abenduaren 21ekoa, 233 eredua onesten duena ("Baimendutako haurtzaindegietako edo haur hezkuntzako ikastetxeetako gastuei buruzko informazio aitortpena") eta hori aurkezteko lekua, modua, epea eta prozedura zehazten dituena eta azaroaren 22ko HAP/2194/2013 Agindua aldatzen duena, zeinaren bidez tributuen arloko zenbait autoliquidazio, informazio aitortpen, errolda aitortpen, komunikazio eta itzulketa eskaera aurkezteko prozedurak eta baldintza orokorrak arautzen diren; eta HAC/773/2019 Agindua, ekainaren 28koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregistro-liburuak nola eraman arautzen duena. . **2020-15598 xedapena - 8 or.**
- **Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga.** - HAC/1155/2020 Agindua, azaroaren 25ekoa, 2021. urterako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren estimazio objektiborako metodoa eta balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen berezia garatzen dituena **2020-15599 xedapena - 90 or.**

- **KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. – Dopina.** – Ebazpena, 2020ko azaroaren 25ekoa, Kirolen Kontseilu Nagusiaren Presidentetzarena, kirolean debekatuta dauden substantzien eta metodoen zerrenda onesten dueña **2020-15601 xedapena - 13 or.**
- **ESPAINIAKO BANKUA. – Kreditu erakundeak.** - 5/2020 Zirkularra, azaroaren 25ekoa, Espainiako Bankuarena, ordainketa erakundeei eta diru elektronikoko erakundeei, finantza informazio publiko eta erreserbatuaren arauak eta finantza egoeren ereduak buruzkoa, eta hauek aldatzen dituena: urriaren 29ko 6/2001 Zirkularra, txanponak aldatzeko establezimenduen titularrei buruzkoa, eta azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra, kreditu erakundeei zuzendua, finantza informazio publiko eta erreserbatuaren arauak eta finantza egoeren ereduak buruzkoa. **2020-15602 xedapena - 44 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/12/01

- **LEHENDAKARITZA.** - 42/2020 DEKRETUA, abenduaren 1ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez hirugarrenez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko. 5170 xedapena - 5 or.

2020/12/04

- **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA.** - AGINDUA, 2020ko abenduaren 1ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bitartez aldatu egiten baita EAEko merkataritza-sektoreari zuzendutako 2020ko ekitaldirako COVID-19 laguntzak arautzen dituen eta horietarako deialdia egiten duen Agindua, aurrekontu-kreditua handituz. 5233 xedapena - 2 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2020/02/12

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - 603/2020 Foru Agindua, azaroaren 20koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena, zeinaren bidez ezartzen dira zergapeko pertsona eta erakunde jakin batzuek zerga eredu eta eskaerak modu telematikoan, Internet bidez, aurkezteko baldintza orokorrak. 3595 xedapena - 5 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/12/01

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 466/2020, Foru Agindua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira, 2020ko azken hiruhilekorako eta 2021eko lehenengorako, makinaren edo aparatu automatikoen bidezko jokoetan aplikatu beharreko kuota finkoak autolikidatzeko epeak. 6404 xedapena - 2 or.

2020/12/02

- **OBERNANTZA DEPARTAMENTUA.** - 1784/2020 Foru Agindua, azaroaren 27koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa kokatuta dagoen helbide elektronikoa ezartzen duena. **6375 xedapena – 2 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 11/2020 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 1ekoa, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoa. **6445 xedapena – 20 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO